

ASTIGARRAGA

Sagardotegiei buruzko gida berria kaleratu da

JOXE ORMAZABAL/DV. ASTIGARRAGA Sagardo denboraldiari dagokionez, Udalak sagardotegien gida kaleratu du aurten ere. Oraingo honetan eta Astigarraga Sagardoaren bihotza dela ikusiz —besteak beste— zera dio, gure sagardotegiak eta bertako zaporre zaharrak benetan ezagutu eta gozatzeko, Astigarraga bezelakorik ez dagoela.

Hamar minutu baino ez dira behar, Donostiatik herrira heltzeko, herriko sagardogintzak mende luzeetako tradizioa du: guztira, 17 sagardotegi daude udalerrri osoan.

Tradizioak eta jaiak, ohitura zaharrak eta berriak bat eginda dabilta, eta giro ona nagusi da alde guztietan. Modu benetan berezia da, lagunartean primeran pasatzeko. Sagardoa barra-barra isurtzen da, txotxaren ohitura ia, ia errito bihurturik baitago...

Aipamen horren ondoren esan beharra dago ere, txotx garaiak urtarrilaren erdialdean hasita Aste Santua bitartean irauten duela. Lan hau euskarra, gaztelera eta frantsesez aur-

keztu da eta bertan herriko sagardotegien ondoan Gipuzkoan dauden gainontzekoak ere agertzen dira.

Eskaintzen diren aholkuen artean ere alde zaurretik lekua gordetzeaz gain, arropa eta oinetako egokiak erabiltzea gomen datzen da. Zotzetik edateko ilarran txanda egin; bukatutakoan upela itxi; eta abar. Herrian daukagun 'Sagardoaren Erakusketak' astelehenetik ostiralera bitartez goizeko hamarretatik eguerdiko hamabietara eta arratsalde 6etatik 8.30 bitartez irekitzen da. Baina larunbata eta igandetan 11etatik 2etara goizez eta 5etatik, 8.30etara.

Edari honen historiari buruz jakin dezagun lurralde honetan sagarra lantzen zelako lehen berria 1.404. urtekoa dugula. Ordutik ia baserri guztiek zuten bere sagastia eta gehienek sagardoa egiteko trujela.

Gaur egun sagardogintzak tradizioaren eta industriaren erdiko bidean dagoela, itzelezko gorakada izan du azken urteetan sagardotegietara joateak izan duen arrakasta dela eta.